

3. 1300. urtea: Bilbori hiri-gutuna eman zioteneko

1300eko ekainaren 15ean Bilbo hiria historian sartu zen, dokumentuei dagokienez behintzat, Diego Lopez de Haro V.a Bizkaiko Jaunak hiri-gutuna eman zionean.

1300etik 1511ra bitartean –Bilboko Kontsuletxea sortu zen urtea–, Diego Lopez de Harok foruak eman zizkion herri txiki hura penintsularen iparraldeko merkataritzagune ahaltsu bihurtu zen, aurretik sortutako beste herri batzuei aurrea hartuz, esate baterako, Bermeori. Hiri-gutuna ez zen izan hiriaren oparotasunaren oinarri bakarra, lehen hirurogeita hamabost urteetan, beste bi errege-pribilegio ere jaso baitzituen: beste hiri-gutun bat eta hasierako hiri-gutunean emandako barrutiaren hedapena.


Guztira bost dokumentu jaso zituen, eta horrela, itsasadarraren ertzean zegoen etorkizun oparoko auzo txikia lehen mailako hiri bihurtu zuten.

3.1. Hiriaren sorreraren atzean zeuden interesak

XII. mendearen bigarren erdira arte, Bizkaiko Golkoaren kostaldea baztertuta izan zuten Leon, Gaztela eta Nafarroako erreinuek. Penintsularen iparraldeko bideardatz nagusiak ekialdetik mendebaldera

ko noranzkoa zuen, Santiago-bideari jarraituz, eta beraz, Euskal Herria interes gutxiagoko gunea zen, merkataritza-bide horretatik urruti zegoen eta.

Baina hainbat idazle ez datoz bat arrazobide horrekin: Euskal Herriaren egitekoa Santiago-bidean ez zela hain bazterrekoa izan aldarrikatzen dute, eta era berean, merkataritza-bide horrek XII. mendearen bigarren erditik aurrera izandako susperraldiak bultzatu zuela euskal hirien sorrera¹.



BIZKAIAREN KOKAGUNEA SANTIAGO-BIDE NAGUSIAN

Halaber, Euskal Herria Santiago-bidetik zokoratu izanaren kontrako iritziak ere badira. Horietako baten arabera, gero ohiko bidearekin elkartzeko barrualderantz jotzen zuen Bermeo edo Bilborako bide bat ere ba omen zegoen kostaldean. Bide alternatibo horrek aztarnak utzi zituen, nonbait, Bizkaiko Jaurren: batik bat, apostoluaren izena zeramaten tenpluak. Bilboko katedrala da horien artean aipagarriena².

Interpretazio horiek ikuspuntu interesgarriak dituzten arren, bistakoa da Santiago-bidetik iparraldera zeuden guneak zokoratuta egon zirela merkataritza-fluxurik garrantzitsuenen aldean. Iparralderago ez bezala, Santiago-bidean hiribildu ugari sortu zituzten hasiera-hasieratik (Jaka, Lizarra, Logroño, Najera, Burgos, Leon, etab.). Gainera, kostaldean beste bide alternatibo bat egoteak ez du esan nahi bide hori garrantzitsua zena.

Bestalde, bistakoa da XII. mendearen amaieratik aurrera hegoaldeko iparralderako ardatz bertikala sortu zela. Ardatz bertikal horrek garai hartan garapen ekonomiko handia zuen. Penintsularen barrualdea eta Europako kostalde atlantikoa lotzen zituen, eta Euskal Herria baztertuta egotetik erdigune izatera igaro zen, bi eremu ekonomikoen lotune bihurtuz. Horrek euskal hirien sorreraren arrazoia izateko itxura handiagoa du, lurraldea antolatzeke interesarekin batera.

Prozesu horri bultzadarik handiena eman ziotenak Antso VI.a Jakituna Nafarroako erregea (Donostia sortu zuena) eta, batik bat, Alfontso VIII.a Gaztelakoa izan ziren. Leonor infantarekin bere dotean Frantziaren hegoaldeko Gaskonia dukerria sartzen zen ezkondu zenez, Alfontso VIII.ak harreman onak zituen Ingalaterrako errege-etxearekin, eta harreman ekonomikoei ere norabide berbera ematen lagundu zion horrek. 1160tik 1210era bitartean, honako herri hauek sortu zituzten Bizkaiko Golkoaren kostaldean, mendebaldetik ekialderantz: San Vicente de la Barquera, Santander, Laredo eta Urdializ Kantabrian, eta Mutriku, Getaria, Donostia eta Hondarribia Gipuzkoan. Kantabriako

eta Gipuzkoako herrien artean Bizkaia zegoen, eta bertan ere prozesu horri ekin zioten, beranduago, hala ere: 1199 eta 1200 artean sortu zuten Bizkaiko lehen hiria, Balmaseda, garai hartan Bortedoko jaunarena zena.



DIEGO LOPEZ DE HARO

Oro har, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko hiriak bi mende eta erditan sortu zituzten. Arabako lehen hiribildua Gesaltza Añana izan zen. Alfontso VII.a erregeak baieztatu zizkion 1140ko urtarriaren 12an Alfontso I.a gudulariak emandako foru zaharrak. Azken hiribildua Urretxu (Gipuzkoan) izan zen: 1383an fundatu zuten. Bi data horien artean, 69 hiribildu sortu zituzten Euskal Autonomia Erkedegoko hiru probintzietan: 21 Bizkaian, 23 Araban (gaur egun Argantzun eta Trebiño Burgoesekoak dira) eta 25 Gipuzkoan. Hiribildu-kopuru handi hori ez zen modu orekatuan banatu hiru probintzietan. Hiribildu asko sortu ziren Bizkaia eta

Gipuzkoaren arteko mugaren inguruan eta oso gutxi Bizkaiaren eta Arabaren mendebaldean. Banaketa kronologikoa ere ez zen oso orekatua izan. Lehen mendean oso gutxi sortu zituzten (1140 eta 1255 bitartean, 16 besterik ez); hurrengo mendea, aldiz, oparoa izan zen (1255etik 1383 bitartean, 53 hiribildu)³.

Bizkaian hiribilduak sortzeko prozesu horretan, Euskal Herria izugarri aldatu zen.

Eskas artikulatutako lurralde izateari utzi eta demografiaren, gizartearen, ekonomia-
ren eta politikaren alorretan antolatua eta
hierarkizatua izatera pasa zen⁴.


Hiribilduak sortzeko eskumena jaunen
boteretik zetorren. Bizkaian 21 aldiz erabili
zuten ahalmen hori XII. mendearen amaie-
ratik XIV. mendearen amaierara bitartean.
Bizkaian fundatutako aurreneko
hiria, seguruenik, Durango izan zen
(1180 inguruan). Antso VI.a Nafa-
rroako erregeak, Gasteizen eta Do-
nostiaren fundatzaileak, sortu zuen.
Dena den, gertaera horren doku-
menturik ez dagoenez, zuhurragoa
da fundazio-data gutxi gorabehe-
ra 1290era atzeratzea. Balmaseda-
ren fundazio-data, ostera, ezaguna
da, izan ere, Bortedoko jaunak fun-
datu baitzuen 1199 edo 1200 urtean.
Beraz, Balmaseda jo behar dugu
Bizkaian sortutako lehen hiritzat.

XIII. mendean zazpi hiribildu
fundatu zituzten guztira, baina
horietatik Urduñaren (1229) eta
Lanestosaren (1287) fundazio-datak
bakarrik ezagutzen ditugu zehazta-
sunez. Bermeo 1236 baino lehen fundatuko
zuten, eta Plentzia ere garai horretan, nahiz
eta 1299an birfundatu egin zuten (segurue-
nik lehen fundazioak porrot egin zuelako).
Otxandio 1236 eta 1254 bitartean fundatu
zuten, eta Ermua, Durango bezala, 1290a
baino zertxobait geroago. Dena dela, bi herri
horien fundazioaren inguruko berririk ez
zen egon ia mende bat geroagora arte.

XIV. mendeko hiribilduak ondo doku-
mentatuta daude eta fundazio-datak ze-
haz-mehaz ezagutzen ditugu: Bilbok eman
zion hasiera zerrendari 1300ean; on-
doren, Portugalete (1322), Lekeitio (1325),
Ondarroa (1327), Areatza (1338), Markina
(1355), Elorrio (1356), Gernika eta Gerri-
kaltz (1366) eta Miraballes (1375) sortu zi-
tuzten; eta, azkenik, Mungia, Larrabetzu
eta Errigoiti (1376).

Jaunak hiribilduak sortzeko eskumenaz
baliatzeko arrazoiak ez ziren berberak izan
kasu guztietan. Bizkaiko hiriak fundatzeko
prozesuan hiru etapa bereiz daitezke sor-
tzeko arrazoen arabera⁵.

Lehen etapa Balmasedaren (1199) eta
Lanestosaren (1287) fundazioen artekoa da.
Bi hiribildu horiez gain, Urduña, Otxandio



BIZKAIAN HIRIBILDUAK SORTZEKO PROZESUA

eta Bermeo ere fundatu zituzten. Badirudi
lehen etapa horretan helburua barrualdean
herri-guneak ezartzea izan zela, Bizkaiko
kostaldea Mesetarekin lotzeko. Egoera
horri Bermeok atera zion etekinik handie-
na, garai hartan Bizkaiko kostaldeko portu
bakarra baitzen.

Bigarren etapa 1290etik (Ermua eta
Durangoren ustezko fundazio-urteak) Areatza
fundatu zuten urteraino (1338) doa.
Bizkaiko kostaldea taxutu nahi izan zuten
bost porturen bitartez –Bilbo, Portugalete,
Lekeitio, Ondarroa eta bigarren aldiz fun-
datutako Plentziaren bitartez–, eta merkata-
ritza-trafikoaren barrualdeko antolamen-
dua osatzen ere saiatu ziren Ermua, Durango
eta Areatza sortuz. Bigarren etapa fun-
tsezkoa izan zen Bizkaiko lurraldea antola-
tzeko, izan ere, mesetatik kostarako sarbi-

deak ugaldu, kostako hornidura osatu eta ondoko Gipuzkoarekin zituen loturak hobetu baitzituen. Baliteke hiri horien kokapenaren iturburuak 1273an Mesta sortu ondoren artile-produkzioan eta burdin ustiaketan lortutako gorakadak izatea. Bi gai horien esportazioa eta eskuz egindako produktuen inportazioa, batik bat oihalena, izan ziren neurri handian bigarren fase horretan Bizkaiko kostaldean portuak eta barrualdean hiribilduak sortzearen arrazoiak.

Azkenik, hirugarren etapa Markina sortu zutenean, 1355ean, hasi eta Mungia, Larrabetzu eta Errigoitiren fundazioarekin (1376) amaitu zen. Bi urte horien artean sortutako hirien zerrenda Elorrio, Gernika, Gerrikaitz eta Miraballesekin osatzen da. Fase horretan sortutako herri-guneak babes-beharren arabera kokatu zituzten, merkataritza-arrazoiengatik sortutako Gernika izan ezik. Hiribilduen egitekoa inguruko lurraldeetako biztanleak babestea zen, eta hiri-gutunetan ez ziren aipatu ere egiten bideak, merkantzia-trafikoa eta horrelako kontuak.

Bizkaiko Jaurreria ardatz bihurtu zen XII. mendearen amaieran, eta Bizkaiko lurraldea egoera berri horretara moldatzeko zegoen antolamendu-premiaren ondorioz sortu zuten Bilbo, Bizkaiko Jaurrerian hiribilduak fundatzeko prozesu orokorrari jarraiki. 1300eko sorrera apaletik abiatuta, geroago ikusiko dugun modura, Bilbo bizkor garatu zen inguruko hiri eta elizateekin lehian.

3.2. Bilboko hiri-gutunaren azterketa

Bilbok bezala, Bizkaiko beste hiribildu guztiek ere Logroñoeko Forua jaso zuten, 1095ean Alfontso VI.ak hiri horri eman ziona, alegia. Gaztelako frankoen lehenengo forua izan zen, eta Lizarrakoaren eta Jakaokoaren edukiak nabarmen handitu zituen⁶.

Logroñoeko foruak merkataritza suspertzen zuen, eta hiri-gutunen bitartez eman


zitzaien hiribilduei. Gutun horietan jatorrizko foruaren beste eskumen osagarri batzuk ere aitortzen ziren. Erregeak ematen zituen bere lurraldeetan, eta Jaurrerietan jaunak. Horixe gertatu zen, adibidez, Bizkaian. Hiri-gutuna lortzeko lehen urratsa kontzejuko ordezkarien eskaera zen. Ordezkarien helburua sakabanatutako biztanleria biltzea eta eginbehar administratibo eta ekonomikoak zentralizatzea zen.

Beraz, hiri-gutuna emateak ez du beti sortzea esan nahi, ordenatzea baizik. Hiri-gutunak ez du beti hiribilduaren sorrera eragiten. Batzuetan, herria hiri bihurtzen du, eta ordutik aurrera, beste egoera juridiko bat eta beste pribilegio batzuk izaten ditu. Hori gertatu zen aipatutako lehen bi faseetan Bizkaiko hiribilduetan, hau da, nagusiki arrazoi ekonomikoek eraginda sortutakoetan. Hirugarren etapan fundatutako hiribildu gehienak, ordea, lurralde hutsetan kokatu zituzten, arriskuan eta babesik gabe zegoen biztanleria biltzeko.

1300ean, Diego Lopez de Haro V.a Bizkaiko jaunak, hiribilduak sortzeko eskumenaz baliatuz, hiri-gutuna eman zion Bilbori. Valladoliden egina zegoen, eta gaztelaniaz idatzita. Data horretatik aurrera, Bilbok hainbat arlotan atera zion etekina egoera berriari⁷:

- Jaunaren jabetzatik guztiz bereizi eta mugatutako lur-eremua eman zitzaion, eremu hori lantzen zuten nekazariak hiriko biztanletzat hartzeko baldintzarekin⁸.

- hiribilduari emandako lur-eremua kolonizatzeke legezko pizgarriak, hau da, lurreak, lursailak, ura, egurra eta abar erabiltzeko erraztasunak jaso zituen. Hiri-gutunaren arabera, Bilboko biztanle guztiek goza dezakete hango lur-eremuaz *“con todas las anchuras et egidos et montes et aguas et logares que en los dichos terminos ha. En tal guisa que podades labrar e plantar et ensanchar et fazer todas ganancias et mejoras, tambien de ruedas et de molinos como de todas las otras cosas”*⁹.



1300EAN BILBORI EMANDAKO HIRI-GUTUNAREN HASIERA

- babes penala eta berme prozesalak: bizilekuaren bortxa-ezintasuna onartu, akusatuen sinesgarritasuna aitortu eta hiribilduan edo hiri-barrutian egindako delituetan erantzukizun penalaren izaera kolektiboa bertan behera utzi zuten.

- biztanleek aurretik zituzten jaun-zergak ezabatu egin ziren: erregearen merioaren eta justizi agintariaren kontrako babesa eskuratu zuten; ozterarte, zerbitzua, moneta-zerga eta errege eta jaunek legezko oinordekorik gabe hildakoan jabetzak eskuratzeko zuten eskubidea bertan behera utzi zen, eta betebeharrak militarrik murriztu egin ziren.

- merkataritza eta industriarako pizgarriak jaso zituen: sailak, arropak, oihalak eta animaliak erosi eta saltzeko askatasuna; jabegoen tolesgabetasuna, Begoñako monasteriokoena izan ezik; asteartero merkatu-azoka egitea eta Bilboko portua abiapuntu edo helmuga zutela egiaztatzen zuten itsasontziei itsasadarrean zehar ibiltzeko askatasuna: *“vos otorgo que en el vuestro puerto de Portugalete ni en la barra ni en toda la*


canal que non aya precio de nave ni de bagel que vengan o salan del lugar cargados con sus mercaduras et mostrando recabdo que vienen a esta villa de Bilbao o van della”.

Ohiz kanpoko eskumenik ez izan arren –Jaurerriko beste hiri batzuek baino gutxiago zituen–, hiri-gutunak garapenerako abiapuntua eman zien bilbotarrei, bereziki itsasadarrean zehar ibiltzeko monopolioaren bitartez. Egia esan, pizgarri horri etekin handia atera zioten hiriaren mesedetan. XV. mendearen erdia aldera, Barakaldon hiribildua fundatzeko asmoa bertan behera uztea lortu zuten bilbotarrek itsasadarrean zituzten eskubideak murriztuko zitzaizkiela esanez.

Itsasadarreko monopolio horrekin batera, hiri-gutunaren bigarren alderdirik garrantzitsua bilbotarren jabegoak libre eta segurutzat jotzea da, arlo horretan infantzoiekin parekatuz. Baina biztanleen estatutu pertsonalari zegokionez, Bizkaiko hiriek, Bilbo barne, ez zuten bereizketarik egin infantzoi eta nekazarien artean, denak burgestzat hartu baitzituzten.

3.3. Hiriari emandako beste pribilegio batzuk

Hiri-gutuna jaso ondoren, Bilbo hiriak beste pribilegio batzuk eskuratu zituen 1301, 1310, 1372 eta 1375ean. Pribilegio horiek garatzen lagundu zioten, hiri-gutunak zituen aldeko xedapenak osatuz.



Beatriz Arizaga eta Sergio Martínez

1301eko urtarrilaren 4an, Bilbok pribilegio bat jaso zuen Fernando IV.aren eskutik eta Diego Lopez de Haro V.a hiriaren fundatzailearen bitartez. Pribilegio horrek funtsezko lau puntu zituen¹⁰:

- Gaztela eta Leongo erresuma guztian bide-saria ez ordaindu behar izatea, *“salvo en Toledo, e en Sevilla e en Murcia”*, ezta joan-etorrien eta salerosketen gaineko beste zergak ere: *“de treintazgo, e de oturas, e de enmiendas, e de peajes, e de entrada e de salida, tambien por mar como por tierra”*.

- arraina harrapatu eta gazitzeko baime-na, Urdializ, Laredo eta beste portu batzuetakoek egiten zuten bezala: *“que los del concejo de de ese lugar (Bilbao) puedan andar e pescar e comprar e salar, asi como facen los de Castro e los de Laredo e de los otros puertos”*.

- Bilboko merkataria gaskoi eta genoa-rrerekin berdintzea Sevillan, hau da, Gaztela-ko merkataritza-gune nagusian: *“que los bilbainos usen en la nuestra aduana de Sevilla, así como usan los gascones e los genoveses, e*

que ninguno non les demande pagar más que quanto usaren pagar los gascones e los genoveses”.


- Bilbon aduana-eskubiderik ez ordaindu behar izatea: *“tenemos por vien e mandamos que todos aquellos que vinieren con mercaderias a este puerto de la villa de Bilbao, que cargen o descarguen las mercaderias que trujieran, francamente, en tal manera que no den hi diezmo ninguno, mas que lo que bayan a dar a Vitoria o a Pancorbo o a otro lugar qualquier de los mis puertos do ellos mejor se podieren avenir con aquellos que recaudaren los diezmos por nos”*.

Lehen pribilegioa Gaztelako hiribildu askok¹¹ eta bigarrena hainbat portuk bazuten ere, azken bi xedapenak ohiz kanpokoak ziren, eta merkataritza oparoa lortzeko aukera eman zioten Bilbo hiribilduari: bilbotarrak Europako merkataritza-elkarte nagusiekin

parekatu ziren, eta salgaiak zamatzeko ordaindu beharreko itsas frankiziari, hiri-gutunean finkatutakoari, lurraldekoa gehitu zioten. Bilboko hiri-gutuna Logroñoko Foruan zegoen oinarrituta, beraz, eta lehorreko gaiez arduratzen zen batik bat. Horren aurrean, 1301eko pribilegioak marinel-izaera eman zion Nerbioiko hiriari, itsasadarrean zuen kokapenarekin bat¹².

Pribilegio hori eman izana interes biri lotuta ulertu behar da: batetik, Bizkaiko Jauna zegoen (Jaurerriaren buruan nahiko egoera larrian egonik, hiriari mesede egi-tea nahi zuen), eta bestetik, Maria de Molina, hau da, Fernando IV.aren ama eta erregeordea (semea adinez nagusi izan arte, noble eta errege-infanteen aldetik etengabe-ko konplotak eta matxinadak jasan zituen). Maria de Molinak Diego Lopez bere mendeko leiala pozik egotea nahi zuen¹³.

Hiriak 1300 eta 1301ean jasotako pribilegioak oso garrantzitsuak ziren arren,



1310ekoak suspertu zuen gehien bertako ekonomia. 1310eko ekainaren 25ean, Maria Lopez de Harok Bilboko hiria birfundatu zuen, ezertarako aipatzen ez duen bere osaba Diego Lopez "Arrotzak" egindako fundazioak baliorik izan ez balu bezala. "Birfundazio" horretan, ia hitzez hitz kopiatu zuen aurreko gutuna, salbuespen bakarra merkatu-eguna asteartetik asteazkenera aldatzea izan zen eta. Baina ia berdinak izan arren, bigarrenak bi eranskin garrantzitsu ditu¹⁴.

Lehenik eta behin, salgaien joan-etorrien gaineko zerga guztiak ezabatu ziren Bizkaiko Jaurerri osoan, nola itsasokoak hala lehorrekoak. Maria Lopezek beretzat gorde zuen "zainen bidesaria" izan zen salbuespen bakarra. Bigarrenik, hiri-gutun berriak zioenez, Pancorbotik abiatu eta Urduñatik igaroz Bermeora iristen zen bidea erabiltzen zuten guztiek Bilbotik pasa behar zuten nahitaez: "el camino que va de Orduña a Bermeo que pasa por Echevarri que vaya por aquella villa de Bilbao e non por otro lugar".

Gainera, honela zioen gutunak: "ninguno non sea osado de tener compra ni venta ni regateria ninguna en todo el camino que va de Areta fasta la villa de Bilbao". Xedapen hori betetzen ez zutenak "desbideratuzat" hartuko zituzten, eta bai merioek eta bai hiriko probestuak den-dena kentzeko eskubidea izango zuten: "todo quanto les fallaren".

Bizkaiko Jaunak Miraballes fundatzeko zuen asmoak (azkenik, 1375ean fundatu zuten) eragindako auzian emaitzarik gabe alegatu zuen Bilbok bigarren pribilegio hori, izan ere, Miraballes lehen aipatutako bidean finkatu baitzuten Bilboren esklusibotasuna urratuz.

Pancorbotik Bermeorako bidean egun bat aurreratzeko aukera ematen zuen toki batean zegoen kokatuta Bilboko portua, eta Maria Lopez de Haroren gutunean jasotako xedapenei esker, Bizkaiko merkataritza-interesen buru izateko behar zituen oinarriak ezarri ziren. Harrezkero, Bermeok galdu egin zuen nagusitasuna Jaurerriko merkataritzan, eta gaur egun bezala, arrantzale-portu bihurtu zen¹⁵.


1372ko urtarrilaren 11n, behin Jaurerria Gaztelako errege-familiaren eskuetan erori eta gero, Joan Trastamarakoa infanteak, gero Joan I.a Gaztelakoa izango zenak, funtsezko hiru puntu sartu zituen pribilegioa eman zion hiriari¹⁶. Lehenik eta behin, bilbotarrek arrantzarako, salerosten jarduteko eta merkantziak hirian eragozpenik gabe sartu eta ateratzeko zuten askatasuna areagotu egin zen. Bigarrenik, Santurtzi eta Algorta ontziak itsasoratzeko lekuak zirela aipatzeak agerian utzi zuen, argi eta garbi ez adierazi arren, itsasadarreko bokalean, Luzero lurmuturretik Galea lurmuturrerai-

no, merkataritza hedatuta zegoela. Hirugarrenik, Bilbok itsasadarraren inguruan zuen monopolioa berretsi egin zen bi xedapenen bitartez: batetik, Bilbo-Barakaldo eta Bilbo-Zamudio eremuei Bilbo-Areeta esparruak Maria Lopez de Haroren 1310eko hiri-gutunaren bitartez lortutako maila berbera eman zien; bestetik, Uribarriko bidea burdin meetako zama-lanetarako muga bihurtu zuen. Bilbok merkataritzaren arloan zituen eskumen guztiak indartu egin ziren alderdi guztietan.

Azkenik, 1375ean, artean infante zen Joan I.ak beste pribilegio bat eman zion Bilbori: jatorrizko hiri-gutunean emandako barrutikoak ez ziren Galdakao, Zaratamo eta Arrigorriagako elizate hurbiletako nekazariak Bilboko hiritartzat hartzea. Xedapen horren bitartez, aipatutako elizateak Bilboko hiri-barrutiko gune bihurtu eta bertako ofizialen agindupean geratu ziren.

Horrenbestez, 1300eko hiri-gutuna, 1301eko errege-pribilegioa, 1310eko birfun-

dazioa, 1372ko bigarren errege-pribilegioa eta 1375eko hiri-barrutiaren hedapena izan ziren Bilbok Erdi Aroan lortutako hazkunde ikusgarriaren oinarriak. Baina jaun eta erregeen laguntzak alferrikakoak izango ziren erabat, hiritarrek beren ahalbideetan uste osoa izan ez balute eta jasotako eskubi-



deei eta beren kasa lortutako abantailei buru-belarri eusten saiatu ez balira.

Oharrak

1. Martínez Díaz, G.: "Poblamiento y Ordenamiento Jurídico en el País Vasco. El Estatuto Jurídico de la población rural y urbana". *Las formas de poblamiento en el Señorío de Vizcaya durante la Edad Media*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1978. 164 or.
2. Sesmero Pérez, F.: "El arte del Renacimiento en Vizcaya". *El arte en Vizcaya desde finales del s. XV hasta la época del barroco*. Indautxu, Bilbo, 1954. 3. or.
3. Euskal hirien fundazio-prozesua ikusi Arizaga Bolumburu, B.: "El País Vasco en la Edad Media". *Nosotros los vascos. Gran Atlas Histórico de Euskal Herria*. Op. cit. 66-71 orr.
4. Ikus García de Cortázar, J.A.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 71-77 orr.
5. Aldaketa txiki batzuk gorabehera, Bizkaiko hirien fundazioaz ondorengoak emandako azalpenari jarraitu zaio. García de Cortázar, J.A.: "Las villas vizcaínas como formas ordenadoras del poblamiento y la población". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 90-91 orr.
6. Ikus Lacarra, J.M.: "Las villas navarras y la colonización urbana". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 178-179 orr.
7. Ikus Arizaga, García de Cortázar, Ríos, Del Val: *Vizcaya en la Edad Media*. I. liburukia. Haramburu, Donostia, 1985. 159-163 orr.
8. Martínez Díaz, G.: "Poblamiento y Ordenamiento...". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 153 or.
9. Bilboko hiri-gutunaren testua ikusteko, Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. Op. cit. 9-11 orr.
10. González, T.: *Colección de cédulas, Cartas Pueblas, Provisiones, Reales Órdenes y otros documentos concernientes a las Provincias Vascongadas*. Imprenta Real, Madril, 1829-1833. 384-386 orr.
11. Ruiz de la Peña, J.I.: "Exclusivismo local de las villas norteña bajomedievales. El ejemplo de Bilbao". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 251 or.
12. CiriQUIAÍN-Gaiztarro, M.: *Los puertos marítimos del País Vasco*. Txertoa, Donostia, 1986. 229 or.
13. García de Cortázar, J.A.: "Sociedad y poder en la Bilbao medieval". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 25 or.
14. 1310eko Bilboren birfundazioaren testua ikusteko, Guiard, T.: *Historia de la Noble Villa de Bilbao*. I. liburukia. Op. cit. 21-23 orr.
15. Ruíz de la Peña, J.I.: "Exclusivismo local de las villas norteñas...". *Las formas de poblamiento...* Op. cit. 252 or.
16. García de Cortázar, J.A.: "Sociedad y poder en la Bilbao medieval". *Bilbao, arte e historia*. I. liburukia. Op. cit. 25-26 orr.